



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



**LANKIDETZA HITZARMENA, URAREN
EUSKAL AGENTZIAREN, VITORIA-
GASTEIZKO UDALAREN ETA
GASTEIZKO UDAL URAK, SA
(AMVISA) SOZIETATEAREN
ARTEKOA, ABETXUKOKO
OINEZKOENTZAKO PASABIDEA
ZABALDU ETA BERRITZEKO OBRAK
EGITEKOA, VITORIA-GASTEIZ
HORNITZEKO HODIAK BARNE
DIRELA.**

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 4ean

BILDU DIRA

Alde batetik, IÑIGO ANSOLA KAREAGA jauna, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi gisa eta erakunde horren estatutuen 7.2 g) artikulua ematen dion eskumena betez.

Bestetik, JAVIER MAROTO ARANZABAL jauna, Vitoria-Gasteizko Udaleko alkatea, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.a) artikulua aitortzen dion udalaren legeko ordezkari baliatuz, eta Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoaren titularrak lagundurik.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN
ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL
AGUA, EL AYUNTAMIENTO DE
VITORIA-GASTEIZ Y AGUAS
MUNICIPALES DE VITORIA S.A.
(AMVISA), PARA LAS OBRAS DE
CONSTRUCCIÓN DE AMPLIACIÓN Y
RENOVACIÓN DE LA PASARELA
PEATONAL DE ABETXUKO
INCLUYENDO LAS TUBERÍAS DE
ABASTECIMIENTO A LA CIUDAD DE
VITORIA-GASTEIZ.**

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de octubre de
2013

REUNIDOS

De una parte, D. IÑIGO ANSOLA KAREAGA, en calidad de Director general de la Agencia Vasca del agua, y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2 g) de los Estatutos de dicha entidad,

De otra, D. JAVIER MAROTO ARANZABAL, Alcalde del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 124.4.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y asistido por la Titular del Órgano de Apoyo a la Junta de Gobierno Local.



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



Eta, bestetik, IDOIA GARMENDIA TELLERIA andrea, A-01007376 zenbakiko IFK eta helbide soziala Vitoria-Gasteizen duen (Puerto Rico kalea, 10 zk.) "GASTEIZKO UDAL URAK, SA" udal-enpresako Administrazio Kontseiluko lehendakari gisa, eta haren izenean eta ordezkaritzan jardunez.

Hiru aldeek, erakunde arteko harremanetan izan behar den elkarrenganako koordinazio, lankidetzeta eta errespetuaren barruan, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko ekainaren 27an onartutako lankidetzahitzarmen hau egiteko beharrezkoa den legezko ahalmena aitortu diote elkarri, eta, horretarako,

AZALDU DUTE

LEHENA.- Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. paragrafoen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, ur-aprobetxamenduen gaineko eskumen eskusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute; bai eta Estatuak legez

Y de otra, D^a. IDOIA GARMENDIA TELLERIA, en calidad de Presidenta del Consejo de Administración, actuando en nombre y representación de la empresa municipal "AGUAS MUNICIPALES DE VITORIA-GASTEIZ, S.A., con C.I.F. nº A-01007376, y con domicilio social en Vitoria-Gasteiz, Calle Puerto Rico nº 10.

Los comparecientes, dentro del marco de los principios de coordinación, colaboración y respeto mutuo que deben informar todas las relaciones interinstitucionales, se reconocen capacidad legal necesaria para el otorgamiento del presente convenio de colaboración aprobado por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz el 27 de junio de 2013, y a tal efecto

EXPONEN

PRIMERO.- Que conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



interés orokorreko zatia jo ez dituen eta beste autonomia-erkidego batzuk ukitzen ez dituzten obra publikoen gainean ere.

BIGARRENA.- Ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bitartez (Urarena), Uraren Euskal Agentzia sortu zen, ingurumenaren gainean eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa. Euskadin uraren politika gauzatzea da haren helburua.

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernua Berritzeko Neurrien abenduaren 16ko 57/2003 Legeak, 85. artikuluko 1. atalean, honakoak hartzen ditu tokiko zerbitzu publikotzat: toki-erakundeek dagozkien eskumenen arabera egiten dituzten guztiak. Zerbitzu publikoaren kontzeptua edozein prestazio-jardura egiteari lotuta dago.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 25. eta 26.1 artikuluetan ezartzen duenez, udalek, nahitaezko eskumeneko zerbitzu gisa, "edateko uraren etxeetako hornidura eta estolderia" ziurtatu beharko dituzte.

Beraz, ur-hornidura eta arazketa udal-eskumeneko funtsezko zerbitzu publikoa dira, eta Toki Erakundeari dagokio

calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras comunidades autónomas.

SEGUNDO.- Que, por Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, se creó la Agencia Vasca del Agua, ente público de derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política de aguas en Euskadi.

TERCERO.- La Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, en el apartado 1 del artículo 85, entiende por servicios públicos locales todos los que prestan las Entidades Locales en el ámbito de sus competencias. El concepto de servicio público queda vinculado a la realización de cualquier actividad prestacional.

La Ley de Bases de Régimen Local 7/1985 en su artículo 25 y 26.1 prescribe que los municipios deberán prestar como servicios de competencia obligatoria el "abastecimiento domiciliario de agua potable y alcantarillado".

Por lo tanto, el abastecimiento y depuración de aguas son un servicio público esencial de competencia

horren eskubidearen monopolioa (TAOLaren 86.3 eta 85.1 artikulua).

Vitoria-Gasteizko Udalerri dagokio ur-horniduraren zerbitzu publikoa egiteko eskumena, eta berorrek kudeatzen du zuzenean uraren ziklo osoa AMVISA tokiko merkataritza-sozietatearen bitartez. Sozietatearen kapital osoa titulartasun publikokoa da.

Obren trazadura Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako jabari publikoko azpiegituretatik doanez, udalerantzukizuneko xedeak betetzeko zerbitzu publikoko ondasunak dira horiek.

LAUGARRENA.- Uraren Euskal AGENTZIAK, Vitoria-Gasteizko Udalerriekin lankidetzan, urteak daramatza Zadorra ibaiak udalerriko igarobidean sorrarazitako uholde-arazoak saihesteko lanean.

BOSGARRENA.- Uraren Euskal Agentziak eta Vitoria-Gasteizko Udalak, 2012ko urriaren 24an, esparru-akordio bat sinatu zuten Zadorra ibaiko eta hegoaldeko ibaietako uholdeen aurka babesteko obrak gauzatzeko, Vitoria-

municipal, y es el Ente Local el que ostenta el monopolio de derecho (Art. 86.3 y 85.1 LBRL).

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz es competente para la prestación del servicio público de suministro de agua y gestiona el ciclo integral del agua de forma directa a través de una sociedad mercantil local AMVISA, cuyo capital es íntegramente de titularidad pública.

El trazado de las obras discurre por infraestructuras de dominio público ubicadas en el Municipio de Vitoria-Gasteiz, por lo tanto, son bienes de servicio público para el cumplimiento de fines de responsabilidad municipal.

CUARTO.- Que la Agencia Vasca del Agua, en colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, lleva años trabajando para evitar los problemas de inundaciones provocados por el río Zadorra a su paso por el municipio

QUINTO.- Que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz han suscrito con fecha 24 de octubre de 2012 un Acuerdo Marco para la ejecución de obras de defensa contra inundaciones del río Zadorra y de los



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



Gasteizko udalerrian, 2013-2020 aldian. Akordio horrek bildu egiten ditu bi erakundeek 2009ko abenduaren 17an sinatutako aurretiazko hitzarmenean ezarri ziren helburuak, hegoaldeko ibaiak izenekoak hobetzeko; Vitoria-Gasteizen uholdeei aurrea hartzeko helburu komunean Zadorra ibai bera gaineratuta.

Ríos del Sur en el término municipal de Vitoria-Gasteiz a lo largo del período 2013-2020. Este Acuerdo engloba los objetivos que se habían marcado en el convenio previo que habían suscrito ambas instituciones el 17 de diciembre de 2009 para la mejora de los denominados Ríos del Sur, añadiendo al objetivo común de prevención de inundaciones en Vitoria-Gasteiz el propio río Zadorra.

SEIGARRENA.- Esparru-akordioan lehenatasunez egin beharrekotzat zehaztutako jardunen artean, Zadorra ibaiko uholdeen aurka babesteko obrak daude, Vitoria-Gasteizko hirigunean (II. fasea: Abetxukoko zubiaren eta Gamarra Nagusiko zubiaren arteko tartea).

SEXTO.- Que entre las actuaciones definidas en el Acuerdo marco a realizar prioritariamente se encuentran las obras de defensa contra inundaciones del río Zadorra en el casco urbano de Vitoria Gasteiz, fase II: tramo puente de Abetxuko-puente de Gamarra Mayor.

ZAZPIGARRENA.- Data berean, hau da, 2012ko urriaren 24an, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten Uraren Euskal Agentziak eta Vitoria-Gasteizko Udalak, honako proiektu hau idazteko eta dagozkion obrak gauzatzeko: "Vitoria-Gasteizko udalerriko igarobidean Zadorra ibaiko uholdeen aurka babesteko jardunak (II. fasea: Abetxukoko zubiaren eta Gamarra Nagusiko zubiaren arteko tartea)".

SEPTIMO.- Que con la misma fecha 24 de octubre de 2012 se firmó un Convenio de Colaboración entre la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la redacción del proyecto y ejecución de las obras de "Actuaciones de defensa contra inundaciones del río Zadorra a su paso por el municipio de Vitoria-Gasteiz, fase II: puente de Abetxuko-puente de Gamarra Mayor".



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



ZORTZIGARRENA.- Bestalde, Zadorra ibaiak Abetxukoko zubian sorrarazten dituen uholde-arriskuarekin lotutako arazoak murrizteko, 2011ko uztailaren 27an, lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten Uraren Euskal Agentziak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta AMVISAK, Abetxukoko pasabidean kokatutako hodiaren ordeztasun ibilguaren azpitik bypass motako hodi bat eraikitze helburuarekin.

Jardun hori beharrezkoa zen, bai hiriburuko hornidura-sistemaren bulnerabilitatea murrizteko, bai ondoren pasabidea zabaltzeko.

Jardun hori amaitzeak ondoren ekarriko du pasabidearen zabalera handitzea; puntu horretan Zadorraren ibarrean egun dauden oztopoak ezabatu ahal izateko.

Hitzarmen honen xede den obrari ezinbestekoa deritzogu ingurune horretan Zadorra ibaiaren egokitze lanetarako aurreikusitako, betiere uholde-arriskua murrizte aldera.

OCTAVO.- Que por otra parte, con el fin de reducir los problemas de inundabilidad provocados por el río Zadorra en el puente de Abetxuko, el 27 de julio de 2011 se suscribió un convenio de colaboración entre la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y AMVISA, para la construcción de una tubería de bypass alternativa a la conducción ubicada en la pasarela de Abetxuko mediante paso subfluvial.

Esta actuación resultaba precisa tanto para disminuir la vulnerabilidad del sistema de suministro de la capital, como para permitir proceder posteriormente a la ampliación de la pasarela.

Como consecuencia de lo anterior, es la terminación de esta obra, lo que conduce a completarla con la ampliación de la pasarela para permitir la eliminación de los obstáculos actualmente existentes en la vega del Zadorra en este punto.

La obra objeto de este convenio es imprescindible para el desarrollo de las labores previstas de acondicionamiento del río Zadorra en este entorno encaminadas a la disminución del riesgo



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



Zadorra ibaiaren egokitze jardun horiek ingurunea errespetatuz uholdeei aurrea hartzea dute helburu, eta ibilguaren zabalera eta pasabidearen luzera handitzea aurreikusten dute, toki horretan ibaiak hustubide ahalmen handiagoa izan dezan eta, ondorioz, ez dezan korrontearen iragaite askea oztopatu.

BEDERATZIGARRENA.- Azaldutako guztia kontuan izanda, 2012ko urriaren 24an Uraren Euskal Agentziak eta Vitoria-Gasteizko Udalak tarte osorako sinatutako hitzarmenean jasotakoren kaltetan izan gabe (Zadorra ibaiko uholdeen aurka babesteko obren II. fase horri dagokionez); bi aldeek, eta AMVISAK ere, komenigarritzat jotzen dute (Abetxukoko pasabidean kokatutako hodiaren ordeztu ibilguaren azpitik bypass motako hodi bat eraikitze helburuarekin, Uraren Euskal Agentziak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta AMVISAK 2011ko uztailaren 27an sinatutako hitzarmenari jarraipena emateko) beste hitzarmen bat sinatzea ibilguaren zabalera eta pasabidearen luzera handitzeko; hustubide ahalmen handiagoa izan dezan eta, ondorioz, ez dezan korrontearen iragaite askea

de inundación.

Esas actuaciones de acondicionamiento del Zadorra, encaminadas a la prevención de inundaciones de modo compatible con la conservación del medio, prevén la ampliación del vano y de la longitud de esta pasarela de tal manera que permita una mayor capacidad de desagüe y, por tanto, no ofrezca un obstáculo ante el libre discurrir de la corriente.

NOVENO.- Que por todo lo expuesto, y sin perjuicio de lo contemplado en el convenio de 24 de octubre de 2012 entre la Agencia Vasca del Agua y Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para el conjunto del tramo relativo a la citada fase II de las obras de defensa contra inundaciones del río Zadorra, ambas partes, además de AMVISA, estiman conveniente, como continuación del convenio suscrito el 27 de julio de 2011 entre la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y AMVISA para la construcción de una tubería de bypass alternativa a la conducción ubicada en la pasarela de Abetxuko mediante paso subfluvial, suscribir un nuevo convenio para la ampliación del vano y de la longitud de esta pasarela de tal manera que permita una mayor capacidad de desagüe y, por



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



oztopatu.

Hori guztia Uraren Euskal Agentziak eta Vitoria-Gasteizko Udalak 2012ko urriaren 24an sinatutako esparru-akordioan jasotakoaren babespean dago. Akordio horren helburua da beharrezko lankidetzak tekniko eta finantzarioa lortzea Zadorra ibaiko eta hegoaldeko ibaiekin uholdeen aurka babesteko obrak gauzatzea, Vitoria-Gasteizko udalerrian, 2013-2020 aldira.

Azaldutako guztiaren arabera, Uraren Euskal Agentziak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta AMVISAK LANKIDETZA HITZARMEN hau formalizatu dute (Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2013ko ekainaren 27an onartutakoa), honako klausula hauen arabera adierazten diren jardunetarako:

KLAUSULAK:

LEHENA.- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen xedea da sinatzen duten erakundeek arteko lankidetzabaldintzak ezartzea, honako proiektu honetan sartutako obrak egiteko: "Abetxukoko oinezkoentzako pasabidea

tanto, no ofrezca un obstáculo ante el libre discurrir de la corriente.

Todo ello, al amparo de lo previsto en el Acuerdo Marco entre la Agencia Vasca del Agua y Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, suscrito el 24 de octubre de 2012 para la colaboración técnica y financiera necesarias para la ejecución de las obras de defensa contra inundaciones del río Zadorra y de los Ríos del Sur en el término municipal de Vitoria-Gasteiz a lo largo del periodo 2013-2020.

Que por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, y AMVISA proceden a la formalización de presente CONVENIO DE COLABORACIÓN (aprobado por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento el 27 de junio de 2013) para las actuaciones que se indican con arreglo a las siguientes :

CLÁUSULAS:

PRIMERA.- Objeto del convenio.

Es objeto del presente convenio el establecimiento de las condiciones de colaboración entre las entidades firmantes para la realización de las obras incluidas en el proyecto de "Ampliación y



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



zabaldu eta berritzea, Vitoria-Gasteiz
hornitzeko hodiak barne direla”.

Proiektuaren aurrekontua 843.112,50 €
da (BEZa kanpo). Kopuru horretatik,
704.400,58 € egitura gauzatzeko eta
beharrezko lehengoratzeko lanak egiteko
dira, eta 138.711,92 € pasabidearen
akabera egiteko (zoladura, baranda eta
argiteria).

BIGARRENA.- Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak.

Uraren Euskal Agentziak honako
konpromiso hauek hartzen ditu bere
gain:

a) Zubiaren egitura gauzatzeko eta
beharrezko lehengoratzeko lanak egiteko
kostuaren % 50 finantzatzea, hitzarmen
honetan jasotako baldintzetan.
Pasabidearen akabera kanpo geratzen
da.

Uraren Euskal Agentziak hitzematen
duen ekarpen gisa, gehieneko zenbateko
hau aurreikusi da: HIRUREHUN ETA
BERROGEITA HAMABI MILA ETA
BERREHUN EURO, ETA HOGETA
BEDERATZI ZENTIMO (352.200,29 €),
BEZa kanpo.

renovación de la pasarela peatonal de
Abetxuko incluyendo las tuberías de
abastecimiento a la ciudad de Vitoria-
Gasteiz”.

El presupuesto del proyecto asciende a
843.112,50 €, IVA excluido, de los
cuales 704.400,58 € corresponden a la
ejecución de la estructura y reposiciones
necesarias y 138.711,92 € al acabado de
la pasarela (pavimento, barandilla e
iluminación).

SEGUNDA.- Compromisos de la Agencia Vasca del Agua.

La Agencia Vasca del Agua se
compromete a:

a) Financiar el 50% del coste de la
ejecución de la estructura del puente y
reposiciones necesarias, en los términos
previstos en el presente convenio.
Queda excluido el acabado de la
pasarela.

El importe máximo previsto como
aportación que compromete la Agencia
Vasca del Agua es de TRESCIENTOS
CINCUENTA Y DOS MIL DOSCIENTOS
EUROS CON VEINTINUEVE CÉNTIMOS
(352.200,29 €), IVA exluido.



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



Beste kreditu bat gaitzera behartuko duten proiektuko aldaketek, baleude, ez dute berekin ekarriko hitzarmen hau aldatzea.

Urtekoak:

2013: 352.200,29 €

b) Lanak segurtasun- eta legaltasun-baldintzetan egiteko beharrezkoak diren obren zuzendaritza teknikoko eginkizunak eta jardunak gauzatzea. Obren zuzendaritzan, AMVISA horretarako izendatzen dituen teknikariek elkarlanean eta behar bezala koordinatuta jardungo da, eta AMVISAK hitzarmen honen laugarren klausulan ezarritako konpromisoaren arabera kontratatuko duen obra-zuzendaritzaren laguntza izango du.

c) Hala badagokio, obra gauzatzeko bidezkoak liratekeen udalaz gaindiko aurretiazko baimenak eta lizentziak kudeatu eta lortzea.

HIRUGARRENA.- Vitoria-Gasteizko Udalaren konpromisoak.

Vitoria-Gasteizko Udala azpiegituraren azken onuraduna izango da.

Las eventuales modificaciones en el proyecto que impliquen la necesidad de habilitar un nuevo crédito, no conllevarán la modificación de este convenio.

Anualidades:

2013: 352.200,29 €

b) Llevar a cabo las funciones y actuaciones de Dirección Técnica de las obras que se precisen para la ejecución con condiciones de seguridad y legalidad. La dirección de las obras se realizará con la colaboración y debida coordinación con los técnicos de AMVISA que ésta determine para tal fin, y contará con la asistencia a la Dirección de Obra que AMVISA se compromete a contratar en la cláusula cuarta de este convenio.

c) Gestionar y obtener las previas autorizaciones y licencias supramunicipales que fueran, en su caso, pertinentes para la ejecución de la obra.

TERCERA.- Compromisos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz tendrá la condición de beneficiario final



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



Vitoria-Gasteizko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) Pasabidea zabaltzeko beharrezko lurak horretarako gaitzea.

b) Obrak behar bezala egin ahal izateko beharrezkoak diren lurren erabilera aldi baterako lagatzea, obrak gauzatzen diren bitartean.

c) Interes publikoko obra horiek egoki gauzatzeko beharrezkoak diren udal-baimenak eta -lizentziak lortzea.

d) % 100ean finantzatzea pasabidearen akabera gauzatzeko kostua (zoladura, barandak eta argiteria). Pasabidearen akaberarako honako zenbateko hau aurreikusi da: 131.268,42 euro Ingurumen eta Espazio Publikoaren 2013/152005432460173/R partidari egotzia, eta 36.573 euro 2014 ekitaldiko udal aurrekontuan sartuko dira, baldin eta kreditu egokia eta behar bestekoa badago.

e) Proiektuaren pasabidearen akaberari legezkiokkeen edonolako aldaketak bere osotasunean proiektatu eta finantzatzea.

de la infraestructura.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se compromete a:

a) Habilitar al efecto los terrenos necesarios para la ampliación de la pasarela.

b) Ceder el uso de carácter temporal de los terrenos necesarios para la correcta ejecución de las obras, mientras dure la ejecución de las mismas.

c) Consecución de permisos, licencias y autorizaciones de carácter municipal que se precisen para la correcta ejecución de las citadas obras de interés público.

d) Financiar el 100% del coste de la ejecución del acabado de la pasarela (pavimento, barandillas e iluminación). El importe previsto para el acabado de la pasarela es de 131.268,42 euros con cargo a la partida 2013/152005432460173/R del Departamento de Medio Ambiente y Espacio Público y 36.573 euros, que se consignarán para su ejecución en el presupuesto municipal del ejercicio 2014 siempre que exista crédito adecuado y suficiente para este fin.

e) Proyectar y financiar en su totalidad, en su caso, eventuales modificaciones de la parte del proyecto referente al



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



f) Behin amaitu ondoren, azpiegitura kudeatzea. Horretarako, hodian erabilera AMVISARI lagako zaio, horiek ustiatu, mantendu eta kontserba ditzan. Berorren bitartekoak baliatuta, pasabidearen akabera mantendu eta kontserbatzeko lanak ziurtatuko ditu (sarbideak, zoladura, barandak eta argiteria).

LAUGARRENA.- konpromisoak.

AMVISAK ondorengo betebeharrak bere gain hartzen ditu:

a) Bere kontura, honako proiektu hau ekartzea: "Abetxukoko oinezkoentzako pasabidea zabaltzea eta berritzea, Vitoria-Gasteiz hornitzeko hodiak barne direla".

b) Adierazitako proiektuan deskribatutako obrak gauzatzeko lanak kontratatzea.

c) Zubiaren egitura gauzatzeko eta beharrezko lehengoratzeko lanak egiteko kostuaren % 50 finantzatzea, hitzarmen honetan jasotako baldintzetan. Pasabidearen akabera kanpo geratzen da.

AMVISAK hitzematen duen ekarpen gisa, gehieneko zenbateko hau aurreikusi da:

acabado de la pasarela.

f) Gestionar la infraestructura una vez finalizada, para lo cual realizará la cesión en uso a AMVISA de las conducciones para su explotación, mantenimiento y conservación. Asegurando con sus medios, el mantenimiento y conservación del acabado de la pasarela (accesos, pavimento, barandillas e iluminación)

CUARTA.- Compromisos de AMVISA.

AMVISA asume las siguientes obligaciones:

a) Aportar a su cargo el proyecto de "Ampliación y renovación de la pasarela peatonal de Abetxuko incluyendo las tuberías de abastecimiento a la ciudad de Vitoria-Gasteiz".

b) Contratar la ejecución de las obras descritas en el proyecto citado.

c) Financiar el 50% del coste de la ejecución de la estructura del puente y reposiciones necesarias, en los términos previstos en el presente convenio. Queda excluido el acabado de la pasarela.

El importe máximo previsto como aportación que compromete AMVISA es



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMABI
MILA ETA BERREHUN EURO, ETA
HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO
(352.200,29 €), BEZa kanpo.

Urtekoak:

2013: 352.200,29 €

d) Obren zuzendaritzarako laguntza
teknikoa ordaindu eta kontratatzea;
lankidetzaz hitzarmen honen bigarren
klausulako b) atalean jasotakoa, hain
zuzen ere.

e) Azpiegitura hidraulikoa ustiatu,
mantendu eta kontserbatzeko lanak
kudeatzea, hura amaitu ondoren eta
Vitoria-Gasteizko Udalak erabilera laga
eta gero; lankidetzaz hitzarmen honen
hirugarren klausulako f) atalean
jasotakoaren arabera.

BOSGARRENA.- Finantzaketa.

Hitzarmena sinatzen duten aldeek
azpiegitura hau finantzatzeko
konpromisoa bere gain hartzen dute,
ondorengo banaketaren arabera:

- Uraren Euskal Agentziak zubiaren
egitura eta beharrezko
lehengoratzeko lanak gauzatzeko
kostuaren % 50 hartzen du bere

de TRESCIENTOS CINCUENTA Y DOS
MIL DOSCIENTOS EUROS CON
VEINTINUEVE CÉNTIMOS (352.200,29
€), IVA excluido.

Anualidades:

2013: 352.200,29 €

d) Costear y contratar una asistencia
técnica a la Dirección de las Obras
prevista en la Cláusula Segunda,
apartado b), de este convenio de
colaboración.

e) Gestionar la explotación, el
mantenimiento y la conservación de la
infraestructura hidráulica, una vez esté
finalizada y tras la consiguiente cesión
en uso por parte del Ayuntamiento de
Vitoria-Gasteiz, según lo previsto en la
Cláusula Tercera, apartado f), de este
convenio de colaboración.

QUINTA.- Financiación.

Las partes firmantes se comprometen a
la financiación de la presente
infraestructura de conformidad con el
siguiente reparto:

- La Agencia Vasca del Agua asume
el 50% del coste de la ejecución
de la estructura del puente y
reposiciones necesarias, con lo



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



gain, hitzarmenean ezarritako mugen barruan.

- Vitoria-Gasteizko Udalak pasabidearen akabera gauzatzearen eta obrak egiteko beharrezkoak diren lursailak eta/edo azpiegiturak erabiltzearen ondoriozko kostuen % 100 hartzen du bere gain.
- AMVISAk proiektua idaztearen ondoriozko kostuen % 100 hartzen du bere gain, bai eta zubiaren egitura eta beharrezko lehengoratzeko lanak gauzatzeko kostuaren % 50 eta obraren zuzendaritzarako laguntza teknikoaren kostu osoa ere.

límites establecidos en el convenio.

- El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz asume el 100% de los costes derivados del acabado de la pasarela, además de la disposición de las parcelas y / o infraestructuras necesarias para la ejecución de las obras.
- AMVISA asume el 100% los costes derivados de la redacción del proyecto, el 50% del coste de la ejecución de la estructura del puente y reposiciones necesarias, así como el total del coste de la Asistencia a la Dirección de Obra.

SEIGARRENA.- Jardunen jarraipen-batzordea.

1.- Hitzarmen honen jarraipen-batzorde bat eratuko da. Sei ordezkari osatuko dute: Vitoria-Gasteizko Udaleko bik, Uraren Euskal Agentziako bik eta AMVISako beste bik. Erakunde bakoitzak bere ordezkariak izendatuko ditu, honako zeregin hauek betetzeko:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak normaltasunez egiten ari direla

SEXTA.- Comisión de seguimiento de las actuaciones.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente Convenio compuesta por seis representantes, dos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos de AMVISA, que se designarán, respectivamente, por cada una de las entidades, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las obras previstas

jarraitzea; elkarri informazioa ematea eta bakoitzari dagozkion konpromisoak betetzea ahalbidetzeko irizpideak eta moduak ezarrita.

b) Kasuan-kasuan beharrezkoak diren izapideen arintasuna oztopatuko duten trabak ezabatzen laguntzea.

c) Hitzarmen honen xede diren jardunak betetzen direla bermatzeko beharrezko neurriak jakinarazi eta proposatzea; bereziki, urte-sariak egokitzeko kasuetan eta bosgarren klausulan jasotakoetan.

d) Hitzarmen honek eta, hala badagokio, ondorengoek sorraraz ditzakeen interpretazio- eta gauzatze-arazoak ebazten laguntzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein alde proposatuta, jardunen martxa egokiak eskatzen duen guztietan bilduko da batzordea, eta batzordeko lehendakaritza eta idazkaritza txandakakoak izango dira. Erabakiak aho batez hartuko dira.

3.- Jarraipen-batzorderako hitzarmenean espresuki jaso ez diren auzietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura

en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula quinta.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el presente Convenio y, en su caso, los posteriores.

2.- Durante la vigencia del Convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la Comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma. Los acuerdos se adoptarán por unanimidad.

3.- En lo no previsto expresamente en el Convenio para la Comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren erregimena eta interpretazioa.

1.- Hitzarmen hau administrazio-arlokoa denez, berori interpretatu eta garatzeko, herri-administrazioen arteko lankidetzahitzarmenei aplikatu beharreko administrazioaren ordenamendu juridikoari jarraitu beharko zaio.

2.- Jarraipen-batzordeak ebatziko ditu hitzarmen honek edo berori exekutatzek planteatutako ditzakeen interpretazio-arazoak, aurreko klausulan adierazitakoari jarriki; ezinezkoa balitz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmenaren ondorioak eta iraunaldia.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte hartzen duten aldeak behartuko nork bere

SÉPTIMA.- Régimen e interpretación del convenio.

1.- El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico-administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución, serán resueltos por la comisión de seguimiento, según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

OCTAVA.- Efectos y duración del convenio.

1.- El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



aginpideei uko egitera edo horiek aldatzera, eta hitzarmenaren indarrez hartzen dituzten konpromisoen ondoriozko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte bere gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta une beretik behartuko ditu aldeak. Gainera, obrak gauzatzeko kontratazioaren likidazioa ordaindu arte iraungo du.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmena iraungitzea.

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igarotzeagatik edo hura deuseztatzeagatik iraungiko da.

2.- Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteei eskubidea izango dute hitzarmena deusezta dadin eskatzeko. Hitzarmena deuseztatuz gero, aldeek erabakiko dituzte gauzatzen ari diren obrak amaitu eta ordaintzeko baldintzak. Gainera, hitzarmena deuseztatzea eragin duen aldeak bai beste aldeei, bai fede oneko hirugarrenei sorrarazitako kaltegalera guztiak ordaindu beharko ditu.

Eta ezarritakoaren indarrez eta horrekin ados daudela erakusteko, parte-hartzaileek hitzarmen hau izenpetu dute,

partes que intervienen, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes desde su firma y, durará hasta el pago de la liquidación de la contratación de las obras para su ejecución.

NOVENA.- Extinción del convenio.

1.- El Convenio se extinguirá por el transcurso del plazo de vigencia, referido en la cláusula anterior o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a las otras para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución. Además, la parte causante de dicha resolución deberá indemnizar todos los daños y perjuicios que se hayan causado tanto a las otras partes como a terceros de buena fe.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



bi aletan, idazpuruan adierazitako tokian señalados en el encabezamiento.
eta egunean.

URAREN EUSKAL AGENTZIAKO
ZUZENDARI NAGUSIA /
DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA



[Redacted signature]

Ansola Kareaga

EL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE
VITORIA-GASTEIZ / VITORIA-
GASTEIZKO ALKATEA

[Redacted signature]

Javier Maroto Aranzabal

AGUAS MUNICIPALES DE
VITORIA S.A.ko
PRESIDENTEA / PRESIDENTE
DE AGUAS MUNICIPALES DE
VITORIA S.A.

[Redacted signature]

Idoia Garmendia Tellería.